

HERRITARREN PARTEHARTZEA.

REUNIÓN DE ZONA Ipurua

DATA 2014/10/16

Saila	Laburpena	Erantzuna
<b>Alkatetza</b>	Bariku eta zapatuetan eskailera mekanikoak ordu gehiagoan martxan edukitzea eskatu dute.	Eskaera aztertu da, baina eskailera mekanikoak ordu gehiagoan edukitzeak ekar ditzakeen eragozpenak nolakoak izango lirakeen ikusita, eta batik bat zarata, ez da onartu. Hala ere, 2016ko urtarriletik aurrera, bide publikoko igogailuak ordu gehiagoan egongo dira zabalik.
<b>Obrak</b>	Fray Martin Mallea kaleko 1. eta 2. pegoretako sarbideetan zerbait egitea eskatu dute, eskailera asko daudelako.	Alde hartan desnibel handia dago eta ezin da arrapalarik egin. Irispidea zertxobait hobetu da Egazelaiko urbanizazioa egitean, handik pegorara sartzeko aukera baitago. 3 zenbakiko pegorakoek proiektu bat aurkeztu dute atzekaldetik sarbide bat eraikitzeo, eta 1 zenbakikoek ikerketa bat. Udalak aldeko txostena egin du.
<b>Obrak</b>	Ubitxatik San Kristobalera bitarteko irispideak hobetzeko eskaera egin da.	Eskaera aztertuta hauxe erabaki da: alde hark dituen ezaugarriak eta hango zailtasun teknikoak ikusita, baita kostu ekonomikoa ere, ez dela bideragarria hori egitea. Irrisgarritasuna hobetzeko planaren barruan, beste aukera batzuk aztertuko dira.
<b>Obrak</b>	Galtzadak Guardia Zibilaren ostean duen egoera eskasa dela-eta, kexatu egin dira.	Bidea asfaltatu zen.
<b>Obrak</b>	Argatxako Jardiñetara joateko ezinduentzako sarbide bat jartzea eskatu dute.	Romualdo Galdos kaletik aldapa handiegia dago arrapalak egiteko. Hala ere, Santañes kaletik ere bidea badago.
<b>Hirigintza</b>	Bizilagun bat kexatu egin da Ipuruako futbol zelaiaren Iparraldeko Tribunaren obregatik.	Hirigintza Saila zaintzen dabil obra horiek proiektuan esandakoa zorrotz bete ditzaten eta egiten dutena pertsonen segurtasunerako bermea izan dezan.
<b>Obrak</b>	Juan Antonio Gisasolaren oinezkoen pasabidean espaloia beheratzea eskatu dute.	Arlo honetako jardunek dagoeneko ez dute beheratzerik egiteko asmorik islatzen, bai ostera pasabide goratuak. Obren plangintza barruan sartu da toki leku horretan pasabide goratu baten eraikuntza.
<b>Hirigintza</b>	Ipuruako 2. dorreko pasabidea erabiltzen dutenek galdetzen dute nork ordainduko dituen futbol zelaiaren obrek baldosetan egin dituzten kalteak.	Obrak amaitzen direnean, alde hura hasi aurretik zegoen moduan uzten dela egiaztatuko da, beraz, konponketa hori kontratistari dagokio egitea kalteak beraiek egin ditzutela egiaztatzen bada.
<b>Udaltzaingoa</b>	Kexatu egin dira ostiraletan eta zapatuetan Egigurentarren parkean futboleak jokatzen eta botiloak egiten jarduten dutelako.	Udaltzaingoa bertaratu egin zen egun eta ordu desberdinetan, plazan botilo gehiago ez egitea lortuz. Bestalde, nahiz eta debekatuta egon, gazte batzuek futboleak jokatzen dute bertan. Kasu hauetan, Udaltzaingoa debekua gogorarazi die. Bizilagunen batek futboleak jokatzen dutela ikusten badu, Udaltzaingoa deitu behar zaio momentuan. Denbora gutxi barru, zezen plazan, horretarako aproposa izango den gunea prestatuko da.
<b>Udaltzaingoa</b>	Valenciagako bidearen ondoan biribilgune bat egitea eskatu dute.	Alde hartako neurriek ez dute uzten biribilgune bat egiten.

HERRITARREN PARTEHARTZEA.

REUNIÓN DE ZONA Ipurua

DATA 2014/10/16

Saila	Laburpena	Erantzuna
<b>Udaltzaingoa</b>	Ipurua aldean errepidea mozten bada informazio gehiago ematea eskatu dute.	Trafikoa moztea eskatu duen enpresa bera da pegoretan eta garajeetan oharrak jartzeko ardua duena. Prentsari ere oharrak bidaltzen zaizkio.
<b>Udaltzaingoa</b>	Romualdo Galdos kalean ezinduentzako beste leku bat gordetzeko premia dagoela adierazi dute.	Kale amaieran dagoeneko badago leku bat baina premia zehatzak daudenean Pegoran aurkeztu behar dira Trafiko Batzordeak aztertu ditzan.
<b>Zerbitzuak</b>	Ipurua kalearen ostean, 1, 3 eta 5ean, sasiak kentzea eta garbitzea eskatu da.	Uztailean egin zen sasi-kentzea.
<b>Zerbitzuak</b>	Juan Antonio Mogel kaleko garajeen gaineko parkean dagoen pergolak ura ez duela ondo jasotzen esan dute.	Hodiak ipini ziren.
<b>Zerbitzuak</b>	Auzoan katuak ugaritu egin direla azaldu dute.	Etorri diren guztiei kaleko animaliei jaten ematea debekatuta dagoela gogorarazi zaie, hori egiten denean, animalia gehiago azaltzen delako, eta horrez gain beste izurrite batzuen kontrolean ere eragina duelako (arratoienean). Auzoko auzozaina izango da bizilagunen batek jokabide desegokiren bat duen zainduko duena.
<b>Zerbitzuak</b>	Esaten du Elgetako bidearen goiko aldean dagoen parkean iturria ez dabilela eta zaborrak ez direla askotan jasotzen.	Urte hasieran garbitu zen iturria eta berriro martxan jarri zen egoera ezin hobegoan egon zedin. Garbiketari buruzko kexa Mankomunitateari helarazi zitzaion eta esaten du paperontziak sarritan husten direla.
<b>Zerbitzuak</b>	San Kristobal kaleko 13aren parean dauden harmaila bi kentzea eskatu dute.	Ez da ikusten harmaila horiek kentzeko premia dagoenik ez duelako inongo eragozpenik egiten eta han dagoen arrapalaren osagarri direlako.
<b>Zerbitzuak</b>	San Kristobal kaleko 17. zenbakiaren ondoan organikoa biltzeko edukiontzari tope edo talka bat jartzea eskatu dute zintarri ondoan utzi ez dezaten.	Arazoa konpontzeko aparkaleku-talka batzuk ipini ziren.
<b>Zerbitzuak</b>	San Kristobal kaleko 12. etxearen osteko patioetara ematen duten sARBIDEAK konpontzea eskatu dute.	San Kristobaleko patiora joateko eskailera batzuk egin ziren.
<b>Zerbitzuak</b>	San Kristobal kaleko 25ean dagoen banku bat lekuz aldatzea eta itzal gehiago izateko arbola bat sartzea eskatu dute.	Alde hura ikustera joanda egiaztatuenez egokia da han dauden arbolak eta bankuen banaketa.
<b>Zerbitzuak</b>	Irrist ez egiteko bandak jartzea eskatu dute.	Alde hura ikustera joan da eta ondorio hau atera da: Zezenbidetik Isasiko kalekara bitartean dauden eskaileretan nahi direla jartzea irrist ez egiteko banda horiek. Horiek abenduan jartzen dira.

HERRITARREN PARTEHARTZEA.

REUNIÓN DE ZONA Ipurua

DATA 2014/10/16

Saila	Laburpena	Erantzuna
<b>Zerbitzuak</b>	Argaxako Jardifñak gutxitan garbitzen direla azaldu dute.	Lekuaren ezaugarriengatik erraztatzailea ez da sartzen, beraz, garbiketa eskuz egiten da astean sei egunetan.
<b>Zerbitzuak</b>	Bolera ondoan dauden etxeetako osteko sasiak kentzea eskatu dute.	Lursaila pribatua da eta jabeari sasiak garbitzeko agindua eman zitzaien.
<b>Obrak</b>	Fray Martin Malleako 1 eta 2 zenbakietan dagoen barneko irisgarritasuna hobetzea eskatu dute.	3 zenbakiak igogailua jartzeko lizentzia dauka, eta 1 zenbakiak aurkeztutako proiektuari dagokionez, aldeko txostena egin du Udalak.
<b>Alkatetza</b>	Udalak zezen plazari buruz eta Guardia Zibilaren lekualdaketari buruz dituen asmoen berri ematea eskatu dute.	Zezen plaza urte osoan erabili ahal izateko, leku hura erabilera askotarako egokitzeko lanak martxan daude. Guardia Zibilaren lekualdaketari buruz, orain dela egun batzuk, Eibarko Udal Osoko bilkurak mozio bat onartu du, gobernu zentralari bere segurtasun indarrak dituen eskumen-eremu horretara soilik egokitzeko eta mugatzeko eskatzen.
<b>Obrak</b>	Kexatu egin dira erorikoaren ondoren horma ez delako konpondu.	Egin beharrekoak egin dira eta arazo hori konponduta dago.